

**GARAPEN LANKIDETZARAKO PROIEKTUAK ETA PRODUKZIO GARAPENERAKO
ETA PRESTAKUNTZA ETA LANGUNTZA TEKNOLOGIKOKO PROIEKTUAK
(I. ETA II. KAPITULUAK)**

**34/2007 DEKRETUAREN INGURUKO AURREKONTU
ZEHAZTAPENAK**

ZEHAZTAPEN OROKORRAK

Kostu zuzenak eta zeharkako kostuak (7.2 art.)

Kostu zuzena: Proiektua martxan jartzeko eta egikaritzeko beharrezkoak diren kostuak.

Zeharkako kostua: Proiektuari zuzenean lotutako administrazio-gastuak dira, bai proiektuaren identifikaziorako, formulaziorako, eta jarraipenerako, bai jardunaren hedapenerako eta gizarte-sentsibilizaziorako.

Kanbio-tasa (22.3.c art.)

Proiektuak deialdiaren Ebazpena Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratzen den eguneko (2014/06/19) kanbio-tasarekin formulatuko dira. Garapenerako Lankidetzaren Euskal Agentziaren webgunean eskuragarri dago lehentasunezko 22 herrialdeen kanbio-tasak biltzen dituen zerrenda. Beste herrialdeen kasuan, 2014/06/19ko datari dagokion kanbio-tasa hainbat webgunetatik lor daiteke (www.oanda.com webgunean adibidez); formularioan kanbio-tasaren iturria adierazi behar da.

Kostu egokiak eta tokiko baliabideak (8.4 art.)

Kostuak, prezioari eta kalitateari dagokienez, ahalik eta egokienak izateko baliabideak jarriko dira; gainera, ahal den neurrian, tokiko baliabide materialak eta giza baliabideak erabiliko dira.

PROFORMAKO FAKTURAK, AURREKONTUAK ETA KANPO BALORAZIOAK

Honako gastu hauetarako 2014ko urtarrilaren 1etik aurrerako proformako fakturak/aurrekontuak/kanpo balioespenak behar dira:

- Balorizazioetan, zenbatekoa edozein izanik ere, kasu guztietan.
- Eraikuntzarako partidari: zenbatekoa 12.000 €-tik gorakoa denean.
- Gainerako partidari: kontzeptu baten kostu unitarioak 2.500 €-ko muga gainditzen badu edo haren guztizko balioak 6.000 €-ko muga gainditzen badu.

Ohiko akatsak

Proformako fakturarik ez aurkeztea

- Proformako fakturarik ez entregatzea, nahiz eta gastuek aipatutako zenbatekoak gainditu.
- Partida berean proformako faktura eskatzen ez duen unitateko kostua (2.500 eurotik beherakoa) duten kontzeptuak errepikatzen direnean, proformako fakturarik ez aurkeztea. Baina kontzeptuak partidari duen guztizko balioak (6.000 eurotik gorakoa) aipatutako zenbatekoak gainditzen ditu, beraz, proformako faktura aurkeztu behar da.
- Tokiko langileen batez besteko soldata ez egiaztatzea (tokiko erakundearekiko kanpokoa den ziurtagiri baten bidez), ezta atzerriratutako langileena ere (nomina bidez).

TOKIKO ERAKUNDEAREN EDO XEDE BIZTANLERIAREN GASTU EGOZGARRIAK ETA BALORIZAZIOAK (ERAKUNDE ESKATZAILEARENAK EZ)

A.I partida: Lurretarako edo eraikinetarako partida

Partida honetan lurrei eta/edo eraikinei dagozkien gastuak biltzen dira, baita horiei lotutako lanekuaren gastuak ere, ondoren xehatzen diren zehaztapenekin.

GASTU EGOZGARRIAK

- Zuzenean proiektuari atxikitako lurren eta/edo eraikinen erosketa. Proiektuaren jardueri eta proiektuaren emaitzen eta helburuen erdiespenari lotutako lur eta/edo eraikinak hartuko dira zuzenean proiektuari atxikitakotzat. Partzialki atxikita badaude, hainbanaketa justifikatu behar da. EZ dira proiektuaren edo erakundearen funtzionamendu orokorrari lotutako lur eta/edo eraikinak.
- Nekazaritzako eta abeltzaintzako lanei lotutako kualifikatu gabeko laneku iraunkorra (proiektuak irauten duen denboraren erdia baino gehiago irauten duena) nahiz laneku puntuala (proiektuak irauten duen denboraren erdia baino gutxiago irauten duena).
- Nekazaritzako eta abeltzaintzako lanei lotutako laneku kualifikatu eta puntuala (proiektuak irauten duen denboraren erdia baino gutxiago irauten duena). Laneku kualifikatu iraunkorra Tokiko Langileen partidari bildu behar da.

BALORIZAZIOAK

Kontzeptua	Egiaztapena
<p><u>Proiektuari zuzenean atxikitako</u> tokiko gizarte-erakundearen edo xede-biztanleriaren jabetzako lur eta eraikinak (osoak edo zenbait areto); eta jabeak izan gabe, horiek erabiltzeko eskubidea duten kasuan ere bai.</p> <p><u>Formakuntza eta prestakuntzei</u> lotutako eraikinak, proiektuaren <u>iraupenaren erdia baino gehiago</u> erabiltzen direnean.</p>	<p>Jabetza-titulua</p> <p>Hala badagokio, erabiltzeko eskubidea laga izanaren agiriak</p> <p>Kanpo-baloratzea</p> <p>Hala badagokio, egiaztatutako hainbanaketa</p> <p>Ekarpenari buruzko konpromisoaren ziurtagiria</p>
<p><u>Formakuntza eta prestakuntzei</u> lotutako eraikinak, proiektuaren <u>iraupenaren erdia baino gutxiago</u> erabiltzen direnean.</p>	<p>Erabileraren kostuaren inguruko taula ofizialak/erabileraren kostuaren inguruko kanpo baloratzea.</p> <p>Ekarpenari buruzko konpromisoaren ziurtagiria</p>
<p>Nekazaritzako eta abeltzaintzako <u>kualifikatu gabeko</u> laneskua, puntuala edo iraunkorra. Laneku kualifikatua ezin da balorizatu.</p>	<p>Jornalaren kostu unitarioaren egiaztapena</p> <p>Ekarpenari buruzko konpromisoaren ziurtagiria</p>

A.II partida: Eraikuntzarako partida

Partida honetan eraikuntzari dagozkion gastuak biltzen dira, baita horiei lotutako langeskuaren gastuak ere, ondoren xehatzen diren zehaztapenekin.

GASTU EGOZGARRIAK

- Eraikinak eta azpiegiturak eraiki edo birgaitzea. Tokiko gizarte-erakundeak edo xede-biztanleriak eraikuntzara zuzendutako lurrari edo birgaitu behar den eraikinari dagokion jabetza-titulua aurkeztu behar du.
- Eraikuntzako edo birgaitzeko lanei lotutako kualifikatu gabeko laneku iraunkorra (proiektuak irauten duen denboraren erdia baino gehiago irauten duena) nahiz laneku puntuala (proiektuak irauten duen denboraren erdia baino gutxiago irauten duena).
- Eraikuntzako edo birgaitzeko lanei lotutako laneku kualifikatu eta puntuala (proiektuak irauten duen denboraren erdia baino gutxiago irauten duena). Laneku iraunkorra bada, Tokiko Langileen partidari bildu behar da.
- Ekipo (hormigoi-makina, palak...) eta eraikuntzako edo birgaitzeko erabilitako materialen erosketa. EZ dira Material eta Ekipoetarako partidari bildu behar, partida honetan baizik.
- Eraikuntzako edo birgaitzeko lanei lotutako azterlan teknikoak.

BALORIZAZIOAK

Kontzeptua	Egiaztapena
Eraikuntzako edo birgaitzeko lanei lotutako <u>kualifikatu gabeko</u> laneku <u>iraunkorra</u> edo <u>puntuala</u> . Laneku <u>kualifikatua</u> ezin da balorizatu.	Jornalaren kostu unitarioaren egiaztagiria Ekarpenari buruzko konpromisoaren ziurtagiria
Eraikuntzarako edo birgaitzeko erabilitako ekipoak.	Erosketa-faktura edo kostuaren kanpo-baloratzea biltzen duen jabetze-ziurtagiria. Balio-galtzearen ziurtagiria: egungo kostua egiaztatzen duen agiria erosketa-prezioaren eta igarotako denboraren arabera Ekarpenari buruzko konpromisoaren ziurtagiria
Eraikuntzarako edo birgaitzeko erabilitako materialak.	Materialen edukitza-ziurtagiria Kostuaren egiaztagiria Ekarpenari buruzko konpromisoaren ziurtagiria
Eraikuntzako edo birgaitzeko lanei lotutako aurretiko azterlan teknikoak (2011tik aurrera).	2011n edo ondoren egindako azterlan baten ziurtagiria Kostua faktura bidez egiaztatzea Ekarpenari buruzko konpromisoaren ziurtagiria

A.III partida: Ekipoetarako eta materialetarako partida

Partida honetan proiektuaren berariazko helburuari zuzenean atxikitako ekipoen eta materialen erosketa- eta garraio-gastuak biltzen dira, ondoren xehatzen diren zehaztapenekin.

GASTU EGOZGARRIAK

- Proiektuaren berariazko helburuari zuzenean atxikitako ekipoen eta materialen erosketa eta garraioa (adibidez, informatika-zentro baterako ordenagailuak, komunitateetara bisitak egiteko automobilak edo motorrak, anbulantzia, irratia, material medikoa, haziak, arrainak, aitzurrak...). Partida honetan, besteak beste, trebakuntzari eta prestakuntzari lotutako ekipoak biltzen dira (materialak, ez; horiek Gaitze eta Prestakuntzaren partidan bildu behar dira).
- Merkatu-azterlanak, ingurumen-inpaktuaren azterketa, karpeta teknikoak...
- Eraikuntzari eta birgaitzeari lotutako ekipo eta materialak EZ, horiek Eraikuntzarako partidan bildu behar direlako. Proiektuaren funtzionamendurako ekipo eta materialak EZ, horiek Funtzionamendurako partidan bildu behar direlako.

BALORIZAZIOAK

Kontzeptua	Egiaztapena
Proiektuaren <u>berariazko helburuari zuzenean atxikitako</u> ekipo eta materialak.	Erosketa-faktura edo jabetze-ziurtagiria, kostuaren kanpo-baloratzearekin. Balio-galtzearen ziurtagiria: egungo kostua egiaztatzen duen agiria, erosketa-prezioaren eta igarotako denboraren arabera Ekarpenari buruzko konpromisoaren ziurtagiria
2013an edo ondoren egindako azterlan teknikoak (merkatu-azterlanak, ingurumen-inpaktua ebaluatzeko azterlanak, karpeta teknikoak...)	2013an edo ondoren egindako azterlanen ziurtagiria Kostua faktura bidez egiaztatzea Ekarpenari buruzko konpromisoaren ziurtagiria

A.IV partida: Tokiko langileen partida

Partida honetan tokiko langileen gastuak biltzen dira, ondoren xehatzen diren zehaztasunekin. Langile horiek dira proiektuaren koordinazio, aholkularitza, laguntza tekniko, trebakuntza (gastu horiek soilik laneku iraunkorraren kasuan bildu behar dira partida honetan; laneku puntuala baldin bada, Gaitze eta Prestakuntzaren partidan bildu behar dira), administrazio eta kontabilitateko ekintzak garatzen dituztenak. Tokiko langileak ere dira gidariak, bulego-garbitzaileak,...

GASTU EGOZGARRIAK (gehienez, Tokiko Langileen partida + Atzerriratutako Langileen partida: guztizko aurrekontuaren % 30, 8.5 artikuluan ezarritakoa salbu)

- Lanaldi osoan nahiz lanaldi partzialean iraunkorki (proiektuaren iraupenaren erdia baino gehiago) kontratatutako pertsonen soldatak eta prestazioak.
 - Gidarien eta zaintzako eta garbiketako langileen soldatak eta prestazioak, salbu eta kanpo-zerbitzu bat kontratatzen bada; kasu horretan, Funtzionamendurako partidan sartu behar da.
 - Nekazaritzako eta abeltzaintzako lanei lotutako lanesku kualifikatu iraunkorraren soldatak eta prestazioak (laneskua puntuala bada, Lurretarako partidan bildu behar da).
 - Eraikuntzako eta birgaitzeko lanei lotutako lanesku kualifikatu iraunkorraren soldatak eta prestazioak (laneskua puntuala bada, Eraikuntzarako partidan bildu behar da).
 - Prestakuntza-jarduerei iraunkorki lotutako pertsonen soldatak eta prestazioak (laneskua puntuala baldin bada, Gaitze eta Prestakuntzaren partidan bildu behar da).
- EZ da bildu behar nekazaritzako eta abeltzaintzako edo eraikuntzako lanei iraunkorki lotutako kualifikatu gabeko laneskua; izan ere, Lurretarako partidan edo Eraikuntzarako partidan bildu behar dira.

EZ DIRA EGOZGARRIAK tokiko langileek proiektuaren ekintza zehatzetarako izan ditzaketen joan-etorrietarako, elikagaietarako eta ostatuko gastuak (horiek Gaitze eta Prestakuntzaren partidan bildu behar dira).

EZ DIRA EGOZGARRIAK tokiko langileek proiektuaren ekintza orokorretarako izan ditzaketen joan-etorrietarako, elikagaietarako eta ostatuko gastuak (horiek Funtzionamendurako partidan bildu behar dira).

EZIN DA BALORIZAZIORIK EGOTZI

- 12, 14 edo 15 paga eta kitapena egotz daitezke (dagokion pertsona proiektuaren esparruan kontratatzeari dagokion ehunekoan).
- Batez besteko soldata egiaztatzea: dokumentu publiko baten bidez edo hirugarren baten (adibidez, beste GKE bat) egiaztapenaren bidez (ziurtagiria + soldata-aula). EZIN DA EGIAZTATU barne-dokumentuen edo nominen bidez.

A.V partida: Atzerriratutako langileak

Partida honetan, atzerrian diren langileei dagozkien gastuak biltzen dira, ondoren zehatzen diren zehaztapenekin; honako hau da aurkeztu beharreko dokumentazioa:

- Aurrekontratua edo lan-kontratua
- Destino akordio osagarria
- Atzerrian den langilea beharrezkoa dela justifikatzen duen memoria; memorian, gaitasun-, kualifikazio- eta iraupen-irizpideak jaso beharko dira eta bete beharreko zereginak deskribatu. Hala badagokio, pertsona bakarra baino gehiago behar direla justifikatuko beharko da.
- Aseguramendu-konpromisoa

GASTU EGOZGARRIAK (gehienez, Tokiko Langileen partida + Atzerriratutako Langileen partida: guztizko aurrekontuaren % 30, 8.5 artikuluan ezarritakoa salbu)

- Atzerrian (EBn) diren langileen –koordinaziorako edo jarduera zehatzetarako kontratatutakoen– soldata eta prestazioak.
- Aseguruaren kostua.
- Nazioarteko bidaien kostua. Gehienez joan-etorriko bidai bat urtean.

- Nazioarteko bidaiei lotutako barne joan-etorrien kostua, jatorritik helmugarainokoa.
- Bisa lortzeko gastuak eta txertaketa-gastuak.

BALORIZAZIOAK EZIN DIRA EGOTZI (ez kontratatuenak, ezta boluntarioenak ere)

- 12, 14 edo 15 paga eta kitapena (dagokion pertsona proiektuaren esparruan kontratatzeari dagokion ehunekoan).
- Gehienezko ordainsaria: 3.000 € hileko (soldata + GS).
- Atzerrian diren langileen nominatik kanpoko gastuak EZIN dira egotzi; esaterako, jarduera zehaztetan parte hartzeak edo horrelako jardueren koordinazio-zereginak betetzeak sortutako gastuak edo helmugako herrialdeko egonaldiaren gastuak (barruko joan-etorriak, ostatua, mantenua).
- Atzerriratutako langilea lagundutako finantzaketan balego, Garapenerako Lankidetzaren Euskal Agentziaren finantzaketan parte hartuz gero aurkeztu beharko litzuzkeen agiri berak eskatzen zaizkio.

A.VI partida: Gaitzeko eta prestatzeko partida

Partida honetan, tokiko giza baliabideen (tokiko langileak eta xede-biztanleria) trebakuntzari eta prestatzari dagozkion gastuak biltzen dira, ondoren xehatzen diren zehaztasunekin.

GASTU EGOZGARRIAK

- Prestakuntzaren zeregina modu puntualean (lanaldiaren erdia baino gutxiago, bestela Tokiko Langileen partidari sartzen dira) betetzen duten langile trebatzaileen kostuak, soldata-mugarik gabe. Dietak edo bideko gastuak ez dira onartzen; aldiz, prestatzarekin zerikusia duten langileen ostatu- eta garraio-gastuak finantziatuko dira. Salbuespen gisa, bakarrik, tokikoak ez diren langile trebatzaileengana joko da (erakunde eskatzaileko langileak badira, ez da onartuko haien nominak egozteak).
- Trebakuntzarekin eta prestatzarekin zerikusia duten tokiko langileen eta xede-biztanleriaren elikadura-, ostatu- eta garraio-kostuak. Dietak edo bideko gastuak ez dira onartzen.
- Trebakuntzarekin eta prestatzarekin lotutako materialen eta gune fisikoen kostuak.

BALORIZAZIOAK

Kontzeptua	Egiaztapena
Prestakuntzaren zeregina modu <u>puntualean</u> betetzen duten langileak	Konpromiso pertsonala Kostuaren egiaztagiria

Ohiko akatsak

- Proiektuak irauten duen denboraren erdia baino denbora gehiagoan trebakuntzari eta prestatzari lotutako langileak balorizatzea; izan ere, langile horiek Tokiko Langileen partidari bildu behar dira eta, beraz, EZIN dira balorizatu.
- Elikadura-, ostatu- eta garraio-kostuak balorizatzea. Horiek EZIN dira balorizatu.
- Prestakuntzari lotutako gune eta aretoen kostuak balorizatzea. EZIN dira partida honetan balorizatu. Proiektuari zuzenean atxikituta badaude, Lurretarako partidari baloriza daitezke, guztiz, proiektuari atxikitako zatian (horretarako hainbanaketa egingo da) edo

guneari / aretoari ematen zaion erabileraren arabera (ikus argibideak Lurretarako partidari).

- Formakuntza materialen kostuak balorizatzea. EZIN dira partida honetan balorizatu. Lortu nahi diren emaitzak lortzeari zuzenean atxikita badaude, Material eta Ekipoetarako partidari baloriza daitezke.

A.VII partida: Errotazio fondorako partida

Partida honetan errotazio fondoarekin zerikusia duten gastuak biltzen dira, ondoren xehatzen diren zehaztasunekin; memoria bat erantsi behar da, besteak beste, funtsaren helburua, interes mota, epea eta bermea biltzen dituena.

GASTU EGOZGARRIAK

- Maileguetara bideratutako zenbatekoa
- Funtsaren kudeaketa- eta administrazio-gastuak (langileen gastuak barne); izan ere, gastu horiek partida honetan bildu behar dira eta ez, Tokiko Langileen partidari.

EZIN DA BALORIZAZIORIK EGOTZI

A.VIII partida: Funtzionamenduaren ekipoetarako, materialetarako eta suntsigarrietarako partida

Partida honetan tokiko erakundearen funtzionamenduari lotutako gastuak (proiektua oro har garatzeko beharrezkoak) biltzen dira, ondoren xehatzen diren zehaztasunekin.

GASTU EGOZGARRIAK

- Proiektua oro har garatzeko beharrezkoak diren ondasun higigarrien eta higiezinen (bulegoa...) alokairuak, betiere proiektuari dagokion ehunekoan.
- Proiektua oro har garatzeko beharrezkoak diren ekipoak, materialak eta material suntsigarriak (kamerak, bideo-proiektagailuak, fotokopiagailu, automobilak...).
- Oinarrizko zerbitzuak: argia, ura, Internet, telefonoa, garbiketa, mezularitza, posta, mugikortasuna... betiere, proiektuari dagokion ehunekoan.
- Proiektuan parte hartzen duten tokiko langileek beren zereginak proiektuaren esparruan garatzeko izandako mugikortasun-, elikadura- eta ostatu-gastuak (trebakuntza-jarduerekin erlazionatuta daudenak salbu).

EZ DIRA EGOZGARRIAK zeharkako gastuen bitartez ordaindu behar diren erakunde eskatzailearen gastuak.

EZ DIRA EGOZGARRIAK erakunde eskatzailearen ordezkariak tokian bertan egindako gastuak.

EZ DIRA EGOZGARRIAK gidarien eta zaintzako eta garbiketako langileen gastuak; horiek Tokiko Langileen partidari dagozkie eta.

EZIN DA BALORIZAZIORIK EGOTZI

IX. partida: Ebaluazio partida

Partida honetan ebaluaziorako/sistematizaziorako gastuak biltzen dira, ondoren xehatzen diren zehaztapenekin.

GASTU EGOZGARRIAK (Partida honetan gehienez: guztizko gastu zuzenen % 2)

- Kanpo-kontratazio batek eragindako gastuak (bidaiak eta mantenua barne), kanpo-ebaluazioaren nahiz ebaluazio mistoaren kasuan.

EZ DIRA EGOZGARRIAK erakunde eskatzaileak edo tokiko erakundeak egindako bidaiak.

EZ DIRA EGOZGARRIAK auditoriak.

EZIN DA BALORIZAZIORIK EGOTZI

Ohikoak diren beste akats batzuk

- Soldatetan eta partidetan onartutako **kopuru eta ehunekoak** gainditzea.
- Atzerriratutako langileen **justifikazio-memoriarik** ez aurkeztea.
- Atzerriratutako langileen **aurrekontrata, kontrata edo akordio osagarria** ez aurkeztea edo aurkeztutakoa akastuna izatea.
- Atzerriratutako langileen **aseguramendu-konpromisoa** ez egiaztatzea
- **Erakunde Eskatzailearen jarraipen-jarduerak** (bidaiak, elikadura...) egiteko gastuen aurrekontua egitea. Gastu horiek zeharkako kostuekin finantzatu behar dira.
- **Dietak** egoztea. Dietak edo bideko gastuak ez dira onartzen, salbu eta Hegoaldeko pertsonen prestakuntzarako Euskadin (normalean K2). Kasu horretan, aseguruak eta dietak onartuko dira, betiere pertsonako eta hilabeteko, 1.500 € gordin arte.
- Pertsona baten soldataren zati bat Gaitze eta Prestakuntzaren partidari egozte eta bestea Tokiko Langileen partidari edo Atzerriratutako Langileen partidari, benetan **funtzio desberdinak betetzen dituzten langile berak direnean**.
- **Ordainagiriaren erabileraren memoriarik** ez aurkeztea edo ofiziala ez den formatuan aurkeztea. Gastuak faktura bidez ezin direnean justifikatu, formulazioarekin batera ordainagiriaren erabileraren memoria bat aurkeztu behar da, Garapenerako Lankidetzaren Euskal Agentziaren formatuan. Ordainagiriak zerbitzuak ematen dituzten pertsonak sinatu behar dituzte. Pertsona horien sinadura lortzea ezinezkoa bada, memorian zehaztu behar da zein kasuetan gertatzen den, eta justifikatu.